

## BERREGOKITZAPEN, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIAKO PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK - NEXTGENERATIONEU FUNTSEKIN FINANTZATUTAKO DONOSTIAKO AISIALDI TURISTIKOKO ENPRESEI IBILGAILU ELEKTRIKOENTZAKO BIRKARGA GUNEAK INSTALATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

### HITZAURREA

Donostiako Udalak tokiko entitateek inbertsio jardueren finantzazioan parte hartzea eskatu zuen, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientziako Planaren 14 osagaiaren 1 inbertsioko 2 azpineurriaren esparruan, Europar Batasunaren berregokitzapen tresnaren barruan, Covid-19 pandemiaren ondoriozko krisialdi ekonomikoa, soziala eta gizatiarraren ondoren berregokitzen laguntzekoa.

Donostiako Udalaren dirulaguntzaren eskakizunean, eta Turismoko Estatuko Idazkaritzaren 2021eko abenduaren 23ko Laguntza Emateko Ebazpenean, zeinaren bitartez argitaratzen den Turismoko Sektoreko Konferentziaren Akordioa eta zeinetan banaketa irizpideak zehazten diren, eta baita tokiko erakundeek, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientziarako Planaren 14. Osagaiaren 1. Inbertsioaren esparruan, inbertsio jardueri zuzendutako kredituaren autonomia erkidegoen banaketa ere, eta baita Euskal Administrazio Orokorraren arteko Hitzarmenean bildutakoa ere, Turismoko, Merkataritzako eta Kontsumoaren eta Donostiako Udalaren artekoa Euskadiko Helmugako Turismoaren Jasangarritasunerako Lurralde Planarentzako Donostiako Helmugako Turismoaren Jasangarritasunerako Lurralde Plana egikaritzeko planari dagokionean, biltzen dira Donostiako Udalak Jardueren eta Ardatzen eremuetan egingo dituen jarduerak.

Trantsizio Energetikorako 2. Ardatzaren eta Donostian higikortasun jasangarria eta irisgarritasun turistikoa hobetzeko Planaren Jardunaren barruan, aisialdiko eta turismoko establezimenduetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen sarea hedatzea dago. Horietan, diruz lagunduko diren jardueren artean ditugu aisialdirako eta turismorako establezimenduetan birkarga puntuak jartzeko establezimenduei / elkarteei Laguntzak martxan jartzea.

Hiriaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko, batez ere kohesio eta jasangarritasun-irizpideen arabera, hiriko eragile publiko pribatuekin eta haien artean adostuta eta lankidetzan arituta, airearen kalitatea hobetzea, deskarbonizazioa, atmosferarako emisioak murriztea, teknologia garbiagoak erabiltzea eta eraginkortasun energetikoa sustatzea bultzatu nahi da.

Energia-trantsizioa sustatzeko neurrietako bat, hiriaren garapen ekonomikoari laguntzeaz gain, **hiriko aisialdi turistikoko enpresetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegituren hedapena bultzatzea da**. Neurri horrek airearen kalitatea hobetzen eta berotegi-efektua eragiten duten emisioak murrizten lagunduko du, eta, horretarako, hiriko aisialdi turistikoko enpresak klima-aldaketak dakartzan erronketan inplikatuko ditu.

Horretarako, Donostiako Udalak ez ditu giza baliabide zein baliabide material nahikoak programa hori gauzatzeko, beraz, egokia iruditu zaio entitate laguntzaile bat izendatzea, 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen orokorrak ezartzen duenaren arabera.

Artikulu horren 2. atalean xedatzen denez, erakunde laguntzailatzat jo ahal izango dira administrazio publikoen partaidetza osoa edo gehiena duten merkataritza-sozietateak.

2011z geroztik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak erreminta estrategiko bat eskuratu dute, **Ekonomia Sustatzeko Plana**, alegia.

Azken 10 urteetan, tresna horrek, goranzko eboluzioari eta ezarritako helburuak betetzeari esker sendotuta dagoenak, hiriaren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egiteko aukera eman du, tokian tokikoa baina baita globala ere, bere lehiakortasuna eta posizionamendua handituz.

Urteko Planaren xede nagusia bide berri bati hasiera ematea da, aurre egitearen eta etorkizuna pertsonetan oinarritutako ekintzen bitartez jorratearen aldekoa, **proiektu berritzaileak** garatuz eta tokiko ekosistemaren **gako eragileekin** batera lan eginez, proiektu horiei laguntzeko, eta **Donostia hiriari** eta bertako talentua garatzen laguntzeko.

Esparru honetan, eta hiriaren erronkak tokiko eragile sozioekonomikoekin hitzartuta, bai toki mailan bai oro har, nazioarteko egungo egoerak dakartzan erronkak barneratuz, Donostia Sustapenak, bere azken 2022 Sustapeneko Planean, hurrengoaren alde egin du:

- **Donostia kohesionatua**, lan aukera berriak garatuz, arreta berezia jarriz zailtasun handiagoak dituzten taldeei.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasuna igoko duten enpresa proiektuak bultzatuz.
- **Donostia zerbitzuen hiri** gisa, kalitatezko merkataritza sare berritzailearen aldekoa.
- **Donostia Zientzian eta berrikuntzan** oinarritutako garapen ekonomikoko eredu gisa.
- **Donostia Hiri Eraldaketaren** prozesu berritzaileen hiri laborategi gisa.

Aurrekoa kontuan hartuta, Donostia Sustapenak bere baliabideak eta eskarmentu handia du diru-laguntzen eta gainerako laguntzen kudeaketan, eta baita europar funtsak kudeatzen ere. Horrek, eta espezializazio mailak, entitatea egoki egiten dute Entitate Laguntzaile betekizunak betetzeko.

Programa hau “Donostiako Helmutzako Turismoaren Jasangarritasunerako Lurralde Plana (PSTD)” (2022-2024) proiektuaren jardueren barruan sartzen da, eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruaren barruan. Azken hau Europar Batasunak finantzatzen du- Next Generation EU funtsekin, Industria, Merkataritza eta Turismoko Ministerioaren bitartez, eta baita Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ere.

36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen beteaz, zeinak “europar funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan haien deialdia barne har dezaketela” dioen, eta 2023ko laguntza horien oinarriak eta deialdia elkarrekin onetsiko diren.

## XEDAPENAK

### 1. ARTIKULUA. HELBURUA

1.- Araudi honen xedea da oinarri arautzaileak ezartzea eta 2023rako diru-laguntzen deialdia egikaritzea, norgehiagokarik gabeko araubideari jarraikiz, **trantsizio energetikoa errazteko eta hiriko ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko Donostian Kokatutako aisialdi eta turismoko enpresetan ibilgailu elektrikoek birkargarako azpiegiturak sustatu eta hedatzeko.**

2.- Dirulaguntza esango diogu oinarri hauetako 9. artikuluan diruz lagun daitezkeen inbertsio eta gastuak egiteko kontraprestazio zuzenik ez duten funts publikoak erabiltzeari.

3.- Oinarri hauei jarraiki emango diren dirulaguntzak “Donostiako Helmugako Turismoaren Jasangarritasunerako Lurralde Plana (PSTD)” delakoan (2022-2024) sartzen dira, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan egikaritua (2021/241 Erregelamendua (EB), Europar Parlamentukoa eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, 14. Osagaiaren, 1. Inbertsioaren, 2. Azpineurriaren barruan, eta Europar Batasunak-Next Generation EU funtsekin, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, eta Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzatuta.

4.- Laguntza hauen azken hartzaile guztiek, bai jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek (autonomoek), bai pertsona juridikoek, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak eta mugak bete beharko dituzte, hargatik eragotzi gabe zuzenbide nazionalako zein EBko gainerako xedapen aplikagarriak, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana betearaztearen eta kudeatzearen esparruan onartzen direnak. Horrela, bada, azken hartzaile bakoitzari eman ahal izango zaion minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ezin izango da 200.000 eurotik gorakoa izan hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan. Horretarako, araubide honen eraginpean daudenek jasotako laguntzen berriazko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, hiru ekitaldi fiskaletan, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan dagokion muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez, laguntza emateko unea kontuan hartuta.

5. Dirulaguntza lerro hau Donostiako Udalaren 2021-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotzen da, eta dirulaguntza honi dagokion Planaren fitxan zehaztutako helburu estrategiko eta espezifikoak lortzen laguntzen du. Honako hauek dira:

Helburu estrategikoak: ingurumen-jasangarritasuna eta bizi-kalitatea: egungo eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea sustatzea ingurumen-jasangarritasunaren esparruan, bereziki larrialdi klimatikoari aurre egiteko ekintzekin.

Helburu espezifikoak: Donostian kokatutako aisialdiko eta turismoko enpresetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneen azpiegiturak hedatzea bultzatzea, trantsizio energetikoa errazteko eta hiri-ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko.

## 2. ARTIKULUA. DIRU-LAGUNTZEN XEDEA ETA LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK

1.- Programaren helburua da ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneen azpiegiturak bultzatu eta hedatzea Donostiako aisialdi eta turismo enpresetan, **energiaren trantsizioa bultzatzeko eta hiri ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko**.

2.- Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen zenbatekoa 20.000 eurokoa da gehienez, aisialdi eta turismo-establezimenduetan birkarga-puntuak jartzeagatik. Laguntza, oro har, diruz lagun daitezkeen gastuen % 70ekoa izango da eta % 10 gehiago, enpresa txiki, mikroenpresa edo jarduera ekonomiko bat egiten duen pertsona fisiko batek egiten badu eskaera, oinarri arautzaile hauen 9.2 artikulua 2. puntuan zehaztutakoaren arabera.

3.- Onuradunek eskakizun bat egin ahal izango dute birkarga puntuak instalatu den establezimendu bakoitzeko.

## 3. ARTIKULUA. ENTITATE LAGUNTZAILEA

1.- 38/2003 Legearen 12.2 artikuluan, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra, Donostia Sustapena udal Sozietatea Entitate Laguntzaile gisa hartuko da Oinarri hauetan datozen laguntzak kudeatzeko, Donostiako Udalaren eta aipatutako Entitatearen arteko Lankidetzaren Hitzarmenean zehazteko terminoetan.

2.- Horretarako, Donostia Sustapenak, diru-laguntzen tramitatzailerik gisa, "leihatila bakar" gisa jardungo du eskakizunak egiteko eta haiei dagozkien dokumentuak jaso eta tramitatzeko.

## 4. ARTIKULUA. ARAUDI JURIDIKOA

1.- Oinarri arautzaile hauetan ezartzen diren diru-laguntzek, haietan xedatutakoaz gain, kasuan kasuko deialdia eta laguntza emateko ebazpena ere izanen dituzte, arau hauetan xedaturikoaren arabera:

- 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituena.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko entitateek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana osatzen duten neurrien mugari eta helburuak betetzearen eta aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana exekutatzeko duen prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen orokorra.

- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Turismoko Estatuko Idazkariaren 2021eko abenduaren 23ko Laguntzaren Ebazpena, zeinaren bitartez Turismoko Sektoreko Konferentziaren Akordioa argitaratzen den, eta tokiko erakundeak Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientziako Planaren 14. Osagaiaren, 1. Inbertsioaren esparruan inbertitzeko jarduerak finantzatzeko kredituaren banaketa irizpideak zein autonomia erkidegoentzako banaketa zehazten diren.
- Euskal Administrazio Orokorraren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez, eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmena, Euskadiko Helmugako Turismoaren Jasangarritasunerako Lurralde Planari dagokion Donostiako Helmugako Turismoaren Jasangarritasunerako Lurralde Plana egikaritzeko.

2.- Halaber, Donostiako Udalaren iruzurraren aurkako neurrien Plana aplikatuko da, plan honen ondoriozko obligazioekin batera, 2022ko martxoaren 15eko Tokiko Gobernu Batzordeak onetsia, eta baita Donostia Sustapenaren Donostiako iruzurraren aurkako neurrien plana ere, Fomento de San Sebastián, S.A.-ren Administrazio Kontseiluak onartua, 2022ko martxoaren 29an.

3.- Era berean, nahitaez bete beharko dituzte entitate onuradunek dirulaguntza ematen duen Administrazioak har ditzakeen gainerako arauak , eta baita eskumena duten nazioko zein Europako gainerako agintariek ere, eta adierazitako finantzazioaren jatorriarengatik laguntza horien onuraduna izan daitezkeelako zehaztutakoak ere.

## 5. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

1.- Oinarri arautzaile hauen arabera emandako dirulaguntzak 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez finantzatuko dira. Europar funtsekin finantza daitezkeen laguntza hauek izapidetu eta emateko, 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituena aplikatuko zaie, aplikatuko den gainerako araudiaren aurka egin gabe.

2.- Horretarako, Programa honi guztira EHUN ETA ZORTZI MILA EURO (108.000 €) esleituko zaizkio, ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuen azpiegitura inplementatzea finantzatzeko erabiliko direnak.

3.- Donostiako Udalak eskubidea du dirulaguntza hauetarako zuzendutako zenbatekoa edo finantzatuko duen eskakizunen kopurua. Halakoetan, interesa izan dezaketen pertsona guztiei jakinarazteaz arduratuko da.

4.- Oinarri eta deialdi honetan araututako laguntzak egikaritzeko erabilgarri dauden funtsek etiketa klimatikoaren ondoriozko obligazioak beteko dituzte (073 etiketa, u% 100 ekarpen klimatikoarekin: Udal garraiobide azpiegitura garbia. udal garraiobide azpiegitura garbia zero emisioko ibilgailuak funtzionatzea ahalbidetzen duen azpiegitura esan nahi du. Azpineurriak ez du etiketatu digitalik.

## 6. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

1.- Laguntzaren onuraduntzat hartuko da laguntza emateko arrazoi izan zen jarduera egin behar duena edo laguntza ematea zilegitzen duen egoeran dagoena, betiere oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak betetzen baditu.

2.- Jarduera ekonomiko bat garatzen duten pertsona fisikoak (autonomoak) edo juridikoak, pribatuak, nazionalak nahiz atzerrikoak izan daitezke diru-laguntzen onuradunak, antolamendu juridikoaren arabera balio osoz eratuak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo utziko dira ondare sozietateak, 2/2014ko Foru Arauaren, urtarrilaren 17koa, 14. artikuluaen baldintzetan zehaztuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarena.

3.- Oinarri hauetan, laguntzak eskatzeko eta haiek egiaztatzeko betekizunak zehaztuko dira. Nahitaez bete beharko da Diru-laguntzen Lege Orokorraren (aurrerantzean LGS) 13. Artikuluan aurreikusitakoa, aplikatzeko aitortuko direnak berariaz.

4.- Hortaz, ezingo zaie eman laguntza pertsona fisikoei edo juridikoei:

a) Ez badaude zerga eta/edo gizarte segurantzaren dituzten obligazioetan egunean, indarrean dauden xedapenen arabera.

b) Ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak dirulaguntza publikoak galtzeko aukerarekin, horretarako desgaitzen duen legezko debeku batean daudenak, sexuan oinarrituta baztertua barne 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 32.2 artikulua biltzen duenaren arabera, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Pertsonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duena. Dekretu horren onuradun ezin izango dira izan pertsona fisikoak edo onuraduna administrazio-zehapenik edo zigorrik jaso duena sexu-diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik dagokion zehapenean ezarritako aldian

Era berean, ezin izango dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera indarrean dagoen berdintasun-plana izan behar duten enpresek, ez eta 50 langiletik gorako enpresek ere, baldin eta ez badute egiaztatzen sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta sexu-indarkeria prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak ezarri dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legeriak ezarritako moduan.

c) Zorrak badituzte Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin.

d) Itzultzeko badute aurretik emandako laguntzaren bat, osoa edo zati bat, itzuli behar den kantitatea sartu dela egiaztatu ezean.

5.- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko. Halaber, jarduten duen administrazioak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahal izango ditu interesatua horren aurka badago izan ezik. Kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

6.- Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren elkarreragintasuneko aplikazioaren bitartez, zuzenean kontsultatuko du Herri Administrazioetan prozedura honen ebazpenerako eta ordaintzeko hurrengo informazioa:

- Donostiako Udalarekin eta Donostia Sustapenarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekin ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergen (IAE) historikoa
- Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

## 7. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEKIZUNAK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO

1.- Onuradunek deialdian parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak dira:

- a. Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea, izaera pribatukoa, Donostiako udalerrian lantokia eta jarduera ekonomikoa duena.
- b. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, altan emanda egotea Donostian, hurrengo epigrafeetako bateko aisialdi turistikoko sektoreari lotutako Jarduera Ekonomikoko Jardueren gaineko Zergen (IAE):

JEZ (IAE)	KONTZEPTUA
1681	OSTATATZEA HOTELETAN ETA MOTELETAN
1682	OSTATATZEA HOSTALETAN ETA PENSIOETAN
1683	OSTATUETAN ETA OSTALARIEN ETXEETAN OSTATATZEA
1684	APARTA-HOTELETAN OSTATATZEA
1685	HOTELAK EZ DIREN OSTATU TURISTIKOAK
1686	APARTAMENTU PRIBATUEN USTIAPENA
1671	JATETXEAK
1672	KAFETEGIAK
1673	KAFETEGIAK, TABERNAK, JANARIAREKIN EDO GABE

- c. Diruz lagundutako inbertsio osoa Donostiako udalean dagoen establezimendurako erabiltzea.

2.- Honako hauek ezin izango dira onuradun izan:

- a) Irabazi asmoarekin edo asmorik gabeko Fundazioak eta Elkarteak.
- b) Ezingo dira onuradun izan sektore publikoko entitate publikoen (halakotzat hartuko dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasotako erakundeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten dutenak), irabazi-asmorik gabeko erakundeen, ondare-sozietateen eta/edo elkargo profesionalen % 25etik gorako partaidetza dutenak”.

3.- Donostia Sustapenak, kudeaketan parte hartzen duen Entitate Laguntzailea izanik, eskubidea du oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen direla bermatzeko beharrezko ikusten duen informazio guztia.

## 8. ARTIKULUA. IBILGAILU ELEKTRIKOEN BIRKARGA PUNTUEN INSTALAZIOEN BALDINTZAK.

1.- Diru-laguntza hauek aisialdi turistikoko sektoreko enpresek egindako inbertsioei eta gastuei laguntzeko erabiliko dira, Donostian kokatutako establezimenduetan, hurrengo baldintzen arabera ibilgailu elektrikoentzat birkarga puntuak jartzeko:

2.- Birkargarako azpiegitura gune pribatuetan egongo da, eta zerbitzua emango die establezimenduko bezeroei, Donostiako udalerrian kokatutako enpresaren instalazioetan.

3.- Ibilgailu elektriko birkarga guneen instalazioak jarraian bildutako araudia bete beharko du, eta baita indarrean den gainerako arauak betetzeko eska daitezkeen betekizunak ere.

- 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa onartzen duena (BOE 18/09/02)
- 1053/2014 Errege Dekretua, abenduaren 12koa, BT 52 "Helburu berezietarako instalazioak: ibilgailu elektriko birkargarako azpiegitura" Behe tentsioko Araudi elektroteknikoa Instrukzio Tekniko Osagarriarena (ITC), 842/2002 Errege Dekretuak onartua, abuztuaren 2koa, eta haren jarraibide tekniko osagarriak eraldatzen dituztenak. (BOE 31/12/14)
- IET/2388/2015 Agindua, azaroaren 5koa, ibilgailu elektrikoarentzako kargatze-konektoreen zenbait eredu baimentzen dituenak (BOE 15/11/12)
- 542/2020 Errege Dekretua, maiatzaren 26koa, Industria-kalitatearen eta -segurtasunaren arloko zenbait xedapen aldatzen eta indargabetzen dituenak. (BOE 20/06/20)

Justifikazioaren unean beste araudi bat indarrean balego, eskatzaileak araudi hori bete beharko du justifikazioko dokumentazioa entregatzen denean.

4.- Bestetik, instalazioak, gutxienez, IEC 62.196-2 arabeko 2. motako konektorea, edo CCS2- Combo 2 konektorea, IEC 62196 arabera, 3 edo 4 moduekin bateragarria, instalazioaren arabera, energia neurria barne duena.

5.- Birkarga guneak instalatzeko obra zibileko proiektua egin behar bada, hurrengo baldintzak sartu behar dira:

- Hondakinen kudeaketaren azterketan, hurrengoak bilduko da:
  - Eraikuntza eta eraipen hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisuari dagokionez), gutxienez (Europako 2000/532/EE Erabakian ezarritako Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik), eraikuntza-lekuan sortutako hondakinak beste material batzuk berrerabiltzeko, birziklatzeko eta berreskuratzeko prestatuko dira, hondakinen hierarkiaren eta EBko eraikuntza eta eraipen hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera.



- Eraikuntza eta eraispén-prozesuetako hondakinen sorkuntza mugatu egin beharko da, EBko eraikuntza eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik, eta eskura dauden teknikarik onenak kontuan hartuz eta gaikako eraispén erabiliz substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatzeko eta manipulatzeko, eta materialak gaika ezabatuz berrerabiltzea eta kalitate handiko birziklatzea errazteko, eraikuntza eta eraispén-hondakinetarako eskuragarri dagoen sailkapena erabiliz.
- Prebentzio neurriak hartuko dira lurzoruaren eta uraren kutsadura (ur eta itsas baliabideak) prebenitzeko eta kontrolatzeko, bai eta obra fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak ere.

6.- Gastu hauek diruz lagundu ahal izango dira gutxienez birkarga gune bat instalatzen denean, eta hau erabilgarri dagoen bitartean gutxienez bost urteko epean instalazioa legezkatzen den unetik hasita.

7.- Ezingo da diruz lagundu: eremu publikoan edo aparkaleku publikoetan kargatze-puntuak jartzea, energia berriztagarria sortzeko sareari lotutako unitateak jartzea, eta kontagailu adimendunak jartzea.

## **9. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

### **9.1 Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**

1.- Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira:

- a. Proiektua
- b. Obra zibila
- c. Ingeniaritza eta obren zuzendaritza kostuak
- d. Birkargako azpiegituraren kostua
- e. Edozein elementu elektriko instalatu edo eguneratzea, transformadorea barne
- f. Beharrezkoak edo lotutako baimenen kostuak
- g. Instalazioa legezkatzearen kostuak
- h. Babesak
- i. Seinaleak
- j. Daudenean, kudeaketa, kontrol eta segurtasun sistema
- k. Beharrezkoak diren telekomunikazioko instalazioak

2.- Inola ere, diruz lagundu daitezkeen gastuak ezingo dira izan haiek merkatuan dituzten balioa baino handiagoak.

3.- Diruz laguntzen ahal diren gastuzat onartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta oinarri arautzaile hauetan ezarritako epean egiten direnak.

4.- Diruz laguntzen ahal den gastuaren zenbatekoa 40.000 €-tik gorakoa bada obra bakoitzeko exekuzio-kostuaren kasuan, edo 15.000 €-tik gorakoa aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresek ekipamendu-ondasunak hornitzen edo zerbitzuak ematen badituzte, erakunde onuradunak hiru eskaintza eskatu beharko dizkie enpresa hornitzaileei, eta horien berri eman beharko da justifikazio-agirietan, zerbitzua emateko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan hura hornitzen duten entitate nahikoa ez dagoenean edo eskakizuna egin aurretik egindako gastua denean izan ezik.

5.- Diruz lagundutako gastuei aplikatuko zaie, berariaz, LGSren 31. art.

## 9.2. Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.- Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, oro har, diruz lagunduko diren gastuen **% 70ekoa izango da, eta beste %10ekoa, eskabidearen kasuan, enpresa txiki edo micropyme gisa** sailkatutako enpresa batek aurkezten duen eskaera bakoitzeko gehienez ere HOGEI MILA EURO (20.000 €) gainditu gabe.

2.- Enpresa txiki gisa ulertzen ditugu hurrengo baldintzak betetzen dituztenak:

a. Pertsona fisikoak edo juridikoak direnean, eskakizuna egiten duen unean enpresa txikien baldintzak betetzea. Enpresa txikitzat hartuko da baldintzak betetzen dituena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- I. Ustiapen ekonomikoa gauzatzea.
- II. Ber aktiboa edo eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekin Ekonomia Itunean zehaztutakoaren arabera, HAMAR (10) milioi baino gehiagokoa ez izatea.
- III. Langileen batez bestekoa 50 langile kontratatutik gora ez izatea.
- IV. Aurreko baldintzetakoren bat betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka 100eko 25eko edo gehiagoko partaidetza ez izatea, salbu eta sozietate edo arrisku-kapitaleko funts horiek foru arau horren IV. kapituluaren ezarritako araubide berezia aplikatu behar bazaie.

Entitatea Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera sozietate talde bateko kide denean, aipatu langile-taldearen magnitudea talde horretako entitateen multzoari dagokio.

3.- Inola ere ezingo dira diruz lagundu balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak ere.

4.- Ordaindutako zenbatekoa ez da inoiz izango oinarri hauetan ezarritakoaren arabera aurkeztu eta justifikatutako gastu edo inbertsioen zenbatekoa baino handiagoa.

5.- Birkarga guneen instalazioa egikaritzeko epea 2023ko urtarrilaren 1etik laguntza justifikatzeko mugaegunera artekoa izango da.

6.- Justifikatutako gastu guztiak dirulaguntza justifikatu aurretik ordaindu beharko dira.

7.- Ezingo da esku-dirutan ordaindu.

8.- Donostiako Udalak oinarri arautzaile hauek beteaz birkarga guneak instalatzen dituzten establezimendu bakoitzari dirulaguntza bakarra eman ahal izango dio, beti ere onuradunak establezimendu horietako bakoitzarentzat dirulaguntza eskatzen duenean.

## 10. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRITASUNA

1.- Oinarri hauetan araututako laguntzak bateragarriak izanen dira beste edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua araberak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatutako inbertsio-proiektuek Batasuneko beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso dezakete, baldin eta laguntza horrek programa honen dirulaguntza finantzatzen duen kostu bera estaltzen ez badu. Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza gehiegizko zenbatekoan murriztuko da.

2.- Onuradunak diru-laguntzen xede diren programak, Europar Batasunekoak nahiz bestelakoak, finantzatzeko jaso dituen laguntza guztiei buruzko informazioa eman beharko dio organo emaileari, betiere finantzaketa bikoitzaren prebentzioaren printzipioa errespetatuz. Komunikazio horri dagokion esleipena edo uko egitea egiaztatzen duen dokumentazioa gehituko zaio.

3.- Oinarri hauetan ezarritako laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako “de minimis” arauak errespetatuko dituzte. Erregelamendu hori 2013ko abenduaren 24ko EBAOn argitaratu zen, laguntza minimoei EBren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa.

4.- Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotzen den laguntzaren zenbatekoa ez da inoiz izanen diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

## 11. ARTIKULUA. ESKAKIZUNAK ETA AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

1.- Eskabideak aurkezteko epea honako hau izango da: oinarri hauen iragarkia Diru-laguntzen Nazioko Datu-basean argitaratu eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunetik, laguntza honetara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte, Oinarri hauen 5. artikulua beteaz (kasu horretan, agortze hori Donostiako Sustapenaren webgunean argitaratuko da) edo, bestela, deialdia itxi arte, hau da, **2023ko azaroko 30era arte**.

2.- Eskakizunak telematikoki aurkeztu behar dira Donostia Sustapenaren webgunearen bitartez ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)).

Edozein informazio edo galderarako, deitu 943.482800 zenbakira edo idatzi fomentoss@donostia.eus helbidera, eta adierazi gaien: “**1.- Ibilgailu elektrikoek birkarga guneak instalatzeko laguntzak**”. Jendearen arreta ordutegia Donostia Sustapenaren web orriari adierazitakoa da.

3.- Onuradunek eskakizun bat egin ahal izango dute birkarga puntuak instalatu den establezimendu bakoitzeko.

Laguntza ekonomiko hori eskatzean interesa zuten enpresa edo entitateek hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

### Dokumentazio administratiboa

- 1) **Eskakizunaren eranskina**. (I. eranskina)
- 2) Pertsona fisikoa bada, eskatzen duenaren **NAN**ren kopia.
- 3) Pertsona juridikoa bada, **eskatzailearen IFZ-ren kopia** eta, dagokionean, ahaldunaren NAN hura ordezkatzeko ahalduntzen duen agiriarekin batera.
- 4) Laguntza eskatu duen pertsonaren edo entitatearen “**Bankuko datuen eranskina**” (2. eranskina), dagokion bankuko entitateak sinatua edo bankuko dokumentu baliokidea.
- 5) Kontu-ikuskaritza egiteko eta funtsen erabilera kontrolatzeko inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea eta tratatzea onartzen dela adieraztea, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari buruzko 2021/241 EB Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera (3. eranskina).
- 6) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoaren aitortpen erantzulea. (4. eranskina).

«Kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa (do not significant harm – DNSH printzipioa) errespetatzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 6) apartatuan eta klima-etiketatzeari buruzkoan (073 etiketa, % 100eko ekarpen klimatikoa duena: Udal garraiobide azpiegitura garbia. Udal garraiobide azpiegitura garbia zero emisioko ibilgailuen funtzionamenduari dagokio.), Berregokitze, Eraldatze eta Erresilientziako Planaren aurreikusitakoaren arabera, 2021eko apirilaren 27ko Ministroen Kontseiluak onartua, eta eskatzaileak bete behar duena nahitaez.

Estatuko laguntzen bateragarritasunaren aitortpena eta finantzazio bikoitzaren prebentzioa.

- 7) Pertsona onuradunaren benetako titulartasuna identifikatzea. Identifikazio hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB)

Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuak definitzen duen zentzuan egingo da, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikulua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikulua dagokionez ezartzen duenari jarraituz. (5. eranskina).

Nolanahi ere, instrukzio organoa gaitzen da programan parte hartzen duten pertsonen egiazko titulartasunari buruzko informazioa eskatzeko, baldin eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak informaziorik ez badu eta hala adierazi badu MINERVA egiaztapen sistemaren ondoriozko bandera beltzaren bidez. Informazio hau instrukzio-organori aurkeztu beharko zaio 5 laneguneko epean informazioaren eskakizuna egiten denetik. Informazio hori aipatutako epean ez aurkezteak prozeduratik kanpo uzteko arrazoia izango da.

- 8) Deialdi honen 4 artikulua 2. Puntuan bildutako iruzurraren aurkako planak baldintzarik eta salbuespenik gabe onartzen direla onestea. (6. eranskina)
- 9) Administrazioetik kanpoko langileek interes gatazkarik (DACI) ez dutela aitortzea (7. eranskina)
- 10) Berriazko baimena ematea honako hauei: Batzordeari, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiari, Europako Fiskaltzari eta agintaritza nazional eskudunei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamendua) xedatutakoaren gaineko eskumenak baliatzeko. **(Eskakizuna)**

#### Dokumentazio teknikoa:

- 11) **Memoria teknikoa.** Egingo diren jardueren memoria teknikoa edo instalazio proiektua, indarrean dagoen araudiak beharrezkoa egiten badu, hurrengo atalak barne hartuta:

#### Deskribapen teknikoa:

- Elementu nagusien deskribapena
- Birkarga sistemaren sailkapena (loteslea, ohikoa, erdiazkarra, azkarra edo ultraazkarra)
- Birkarga guneen kopurua, puntuaren potentzia elektrikoa
- Konektore kopurua eta motak (1. mota, 2. mota (IEC 62.196-2), etab.)
- Aldi berean karga daitezkeen ibilgailuak
- Kargatzeko potentzia maximoko ibilgailuaren birkarga puntua islatzea eta haren balioa 50 kW edo gehiagokoa bada.
- Instalaziorako aurreikusitako potentzia: birkarga gunetako potentzia maximoen batura (kW)
- Konektibitatearen ezaugarriak, aplikatu behar izanez gero.

Instalazio elektrikoaren, obra zibilaren, seinaleen eta abarren deskribapen xehatua.

Birkarga puntuaren kokapena (GPS koordinatuak). Proiektuaren planoak edo krokisa beste dokumentu erantsi batean gehitzea.

## Aurrekontu xehatua.

### 12) Hornitzailearen edo hornitzaileen aurrekontua.

Aurreko ataletan aipaturiko dokumentuentzat, dagozkien eranskinak emango dira eskakizunarekin batera. Eranskin guztiak osorik bete behar dira. Sinatu behar diren erantsi beharreko dokumentuak sinadura digitalarekin sinatuko dira.

4.- Onuradunak bere gain hartuko du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa, bai eta aurkeztutako gainerako dokumentazioa ere.

5.- Donostia Sustapenak nahi adina informazio eskatu ahal izango du oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko.

6.- Dokumentuak aurkezteko epeak betetzen ez badira, edo oinarri hauetan aurreikusitako betekizunen bat betetzen ez bada, eskakizuna baztertuko da.

## 12. ARTIKULUA. ESKAKIZUNETAKO AKATSEN ZUZENKETA

1.- Dokumentazio guztia aztertuta, egiaztatzen bada eskabidea ez dela osorik bete, edo agiriren bat falta dela, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko HAMAR (10) egun balioduneko epean, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela aurreiazko prozedura, Legearen 68. artikulua arabera emango dena.

2.- Akatsa zuzentzeko eskatuko den dokumentazioa telematikoki aurkeztuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik, organo instruktoreak berariaz baimendu ezean.

3.- Diru-laguntza eskatzeko unean eta ordainketak egiteko unean Udal Diru-bilketarekin, Ogasunekoarekin eta/edo Gizarte Segurantzarenarekin egunean ez badaude, hau betetzen dutela egiaztatu beharko dute, jakinarazpena jaso eta HAMAR (10) egun balioduneko epean.

4.-Organon instruktoreak azalpenak eskatu ahal izango ditu, egokiak baderitze.

## 13. ARTIKULUA. INSTRUKZIOA EGITEKO ORGANON ESKUDUNAK, ETA EBAZPENAK

1.- Donostia Sustapena izango da laguntza horien organon eskuduna, Donostiako Udalarekin Lankidetzaren Entitate gisa.

Instrukzio organoak ofizioz egiten ditu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketaren guztiak, administrazio baldintzak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko eta diruz lagundu ahal diren balorazioa egiteko.

2.- Europar funtsen diru-laguntzen berezitasunari erreparatuta, oinarri arautzaile hauek lehiakortasunik gabeko esleipeneko dirulaguntza gisa izapidetuko dira, 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 62. artikuluan, abenduaren 30ekoa, zeinaren bitartez Herri Administrazioaren

modernizaziorako eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presazko neurriak onartzen diren. Horren bitartez, ekintzak beste proposamen batzuekin alderatu gabe finantzatu ahal izatea eta eskakizunak aurkezten diren ordenan esleitu ahal izatea onartzen da, diruz lagunduko den egoera edo jarduketaren egokitasuna eta eskatzen diren betekizunak egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontua agortu arte edo **deialdia 2023ko azaroaren 30ean ixten den arte**.

3.- Organo eskudunak gehienez ere 6 hilabeteko epean emanen du ebazpena, deialdiaren laburpena GAOn argitaratzen denetik hasita. Epea igarota onuradunen berariazko ebazpena egon ez bada, onuradunek baztertutzat eman dezakete eskakizuna.

Diru-laguntza eman edo ukatzeko, Tokiko Gobernu Batzarrak berariazko ebazpen arrazoitua emanen du, Ekologia, Osasun Publikoa, Garapen Ekonomikoa eta Enpleguko zinegotzi delegatuari eskuordetu ahal izateko aukera ukatu gabe.

Laguntzak eman edo ukatzea banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.- Bai onuradunak hautatzeko eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozeduraren instrukzioan parte hartzen duten pertsonak, bai ebazpena emateko organo eskuduneko pertsonak, interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpena sinatu beharko dute (DACI) eta hori egiaztatuko da HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana exekutatzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoak bildutakoaren arabera.

#### 14. ARTIKULUA. AZPIKONTRATAZIOA

1.- Diruz laguntzen ahal den gastuaren zenbatekoa 40.000 €-tik gorakoa bada obra bakoitzeko exekuzio-kostuaren kasuan, edo 15.000 €-tik gorakoa aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresek ekipamendu-ondasunak hornitzen edo zerbitzuak ematen badituzte, erakunde edo pertsona onuradunak hiru eskaintza eskatu beharko dizkie enpresa hornitzaileei, eta horien berri eman beharko da justifikazio-agirietan, zerbitzua emateko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan hura hornitzen duten entitate nahikoa ez dagoenean edo eskakizuna egin aurretik egindako gastua denean izan ezik.

2.- Pertsona edo erakunde onuradunarentzat ezarritako obligazio guztiak egikaritzan parte hartuko duten azpikontrataista guztiek ere eskatuko zaizkie.

#### 15. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

1.- Laguntzen onuradunek laguntzaren xede den jarduketa burutu, fakturatu eta ordaindu dutela justifikatu beharko dute, laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik hasita **SEI (6) hilabeteko epean, eta, betiere, 2024ko irailaren 2a baino lehen**.

Oinarri hauetan zehaztutako eskakizun eta baldintzak edo epeak betetzen ez badira, laguntza ukatu dela ulertuko da, eta ondoriozko ebazpena bidaliko da.

2.- Organo instruktoreak ofizioz egingo ditu beharrezkoak ikusten dituen ekintzak, dirulaguntza Oinarri Arautzaileetan bildutako xedeekin edo helburuekin erabili direla egiaztatzeko.

3.- Diruz lagun daitezkeen gastutzat onartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten direnak. (9 eta 15. artikulua)

4.- Diru-laguntzaren ordainketa ez da izango hura eman zenean onartutako zenbatekoa baino gehiagokoa.

5.- Laguntza aldi batean ordainduko da, hurrengo dokumentazioa aurkezten denean.

### Justifikatzeko dokumentuak:

#### 1) Justifikazioaren eranskina.

#### 2) Eranskina: “Azken memoria”:

- Emandako dirulaguntzaren esparruan egindako jarduerak:
  - Diseinuaren memoria teknikoa eta buletina, proiektua behar ez duten instalazioetan.
  - Proiektua, obraren zuzendaritza ziurtagiria eta buletina, proiektua behar duten instalazioetan (P>10 kW kanpoan eta P>50 kW barruan).

Instalazioa, laguntzaren xede diren gastuak barne, gauzatuta eta martxan dagoela frogatzen duen froga fede-emailea.

- Birkarga estazioa hornitzen duen koadro elektrikoaren argazkia.
- Birkarga estazioa instalatuta dagoela frogatzeko argazkia.
- 10 segundoko bideo bat deskargatzeko esteka, non autoa kargatzen ari dela ikus daitekeen.

#### 3) “Memoria ekonomikoa” eranskina, laguntzaren kostua justifikatzen duena, Excel formatuan.

Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data, eta gastuen frogagiri guztiak bilduko ditu, banakatuta, edo, bestela, laguntzaren xedea betetzen dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein agiri.

- 4) Diru-laguntzen xedeen **fakturak**. Fakturak xehatuak izan behar dute, eta laguntzaren azken hartzailearen izenean jaulki behar dira, laguntzaren xede ziren



kontzeptuak identifikatu ahal izateko. Pertsona edo erakunde onuradunak Next Generation Europako funtsen finantziakzioa aipatu beharko du fakturaren kontzeptuaren hasieran, “Europar Batasunaren aldeko finantzaketa – NextGenerationEU” adierazpenaren bidez.

## 5) Egindako ordainketen bankuko justifikantea

Ordainketa hori aurkeztutako fakturei dagokiela zalantzarik gabe identifikatzeko aukera ematen duten ordainagiri guztiak onartuko dira. Baliozkotzat hartuko dira hurrengoak identifikatzea ahalbidetuko duten ordainagiriak:

- Diru-laguntzaren onuradunak egin du ordainketa.
- Ordaindutako kantitateak jasotzen dituen hirugarrena.
- Ordainketa-data.

**6) Instalazioa legezkatzea.** Aitorpen erantzulea Industria ordezkarietan izapidetu izanaren justifikantea.

**7) Hondakinak kudeatzeko ziurtagiriak.** Obra zibila eskatzen bada, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aplikatuz, 3. artikuluan adierazitako hondakinen kudeaketari buruzko helburuak bete direla justifikatzeko.

Tituludun profesional batek sinatutako obra-proiektua behar duten instalazioetarako:

- Hondakinen kudeaketari buruzko azterlana (obra zibileko proiektuaren fasea)
- Hondakinak kudeatzeko plana (obra zibileko fasea)
- Hondakinen kudeaketaren ziurtagiria (obra zibilekoa), baimendutako kudeatzaile batek emana.
- Obra zibileko hondakinen balorizazio-ziurtagiria (kantitatea eta tratamendua).

Obra-proiekturik behar ez duten instalazioetarako: eraikuntza- eta eraispén-hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa, hondakinak kudeatzeko helburuak betez.

Kutsadura prebenitzeko neurriak ezarri direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Dokumentuak telematikoki aurkeztu behar dira. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikanteak. Halaber, eranskin guztiak bete behar dira eta elektronikoki sinatu.

Egindako gastua justifikatzeko dokumentazio osagarria eskatu ahal izango da, baita Estatuko edo Europako araudiaren arabera PRTRren esparruan eska daitekeen beste edozein egiaztapen edo txosten ere.

## 16. ARTIKULUA. JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA

1.- Onuradunek administrazio emaileak egindako egiaztatze-jarduketak, Kontu-hartzailletza Nagusiarri dagozkion finantza-kontrolako jarduketak eta Kontuen Auzitegiaren legerian ezarritakoak bete beharko dituzte, bai eta Batzordeak eta Europako Erkidegoetako Kontuen

Auzitegiak egin ditzaketenak ere, bai eta Iruzuraren aurkako Borrokarako Europako Bulegoak, Fiskaltzak, hala dagokionean, eta Estatuko Bulegoak ere.

2.- Nolanahi ere, oinarri hauetan araututako diru-laguntzek Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezartzen den jarraipena, kontrola eta ebaluazioa bete beharko dituzte, bai eta EBko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismorako ezartzen diren eta nahitaez aplikatu behar diren informazioari eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari, ebaluazioari eta barne-araudiak eta Europar Batasunak ezarritako gainerako betebeharrei buruzko berariazko betebeharrak ere.

3.- Bereziki, dirulaguntzak ematen dituzten administrazioek, Berreskuratze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien inguruan, formatu elektronikoa, datuen kategoria harmonizatuak bilduko dituzte, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan zehaztutakoarekin bat etorri.

4.-Pertsona onuradunek finantzaketari dagozkion frogagiriak eta gainerako agiriak formatu elektronikoa gorde beharko dituzte bost urtez, saldoa ordaintzen denetik edo, ordainketarik ez badago, eragiketa ordaintzen denetik, edo hiru urtez, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren 132. artikuluan ezarritakoaren arabera («Finantza Erregelamendua»).

## **17. ARTIKULUA. URRAKETAGATIK EDO BEHARTUTA BUKATZEA. ITZULERA ETA ZIGOR ARAUDIA**

1.- Jasotako diru-kopuruak itzuli egin beharko dira, eta, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzen duen araudian aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, dirulaguntza ordaintzen den unetik diru-itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesa eskatu beharko da, bai eta oinarri hauetan aurreikusitako kasu berezietan ere.

2.- Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta, beraz, premiamendu bidez eskatzen ahalko dira, dirua itzultzen ez bada zehazten diren epeetan.

Onuradunak jasotako ekarpenaren zenbateko guztiak itzuli beharko ditu, Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak larriki eta/edo behin eta berriz betetzen ez baditu. Adibide gisa, baina ez muga gisa, ez-betetze larritzat eta/edo errepikatutzat joko da aurkeztutako dokumentazio ofiziala faltsutzea, kopia egitea, plagioa egitea edo hirugarrenen eskubideak urratzea, aurkeztutako proiektua aurkeztuz, etab.

4.- Era berean, DNSH printzipioa eta etiketatze klimatikoaren ondoriozko betebeharrak (073 etiketa) ez betetzea ere dirua itzultzeko arrazoia izango da, %100eko ekarpen klimatikoarekin: Udal garraiobide azpiegitura garbia. Udal garraiobide azpiegitura garbia zero emisioko ibilgailuak funtzionatzea ahalbidetzen duen azpiegitura esan nahi du).

5.- Itzultzeko prozedura Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 41. artikuluan eta hurrengoetan eta hura garatzen duen Erregelamenduaren 91. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera garatuko da.

Diru-laguntza emateaz arduratuko den organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da, Ekologia, Osasun Publikoa, Garapen Ekonomikoa eta Enpleguko zinegotzi delegatuari eskuordetu ahal izateko aukera ukatu gabe.

6.- Halaber, dirua itzultzeko arrazoiren bat gertatzen bada, ordaindu gabe gelditzen diren kopuruak kobratzeko eskubidea galduko da.

Gainera, eskatzailea ezingo da berriz aurkeztu programara.

7.- Zigorren eta isunen arloan, 38/2003 Legearen 56 eta ss artikuluetan, azaroaren 17koa, xedatutakoa beteko da, Diru-laguntzen Orokorra, eta haren garapenaren xedapenekoak. Zigorrek ezartzeko akordioek bide administratiboari amaiera emango diote.

## 18. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEKIZUNAK

1.- Onuradunek beren gain hartuko dituzte Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak, ondorio horietarako berariaz aplikaziokotzat jotzen direnak, honako betebeharrak hauei erreferentzia eginez (aipamenezkoa eta ez mugatzailea):

- a) Diru-laguntza diruz lagundutako kontzeptuentzat erabiltzea.
- b) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztea, zehaztutako moduan eta epean.
- c) Jasotako laguntzak erabili direla egiaztatzen duten agiriak gordetzea, egiaztatzeko eta/edo ikuskatzeko, eta, betiere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean.
- d) Laguntzaren xede diren jardueren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatzea.
- e) Kontabilitate liburuak behar bezala erabiltzea, horretara behartuta dagoenean.
- f) Zerga obligazioak eta Gizarte Seguratasuneko obligazioak egunean izatea.
- g) Laguntzaren xedea den jarduera egiteko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- h) Ibilgailu elektrikoak birkargatzeko azpiegitura instalatzeko indarrean dagoen legeriaren araudia betetzea
- i) Donostia Sustapenari jakinaraztea egoera ororen aldaketa, bai subjektiboa bai objektiboa, laguntzak emateko kontuan izan dena, gertakizunetik 15 egun naturaleko epean.
- j) Donostia Sustapenak, emandako laguntzekiko bere funtzioak egikaritzen eskatuko dion informazio guztia ematea

- k) Donostia Sustapenari jakinaraztea xede berarekin jasotako beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak.
- l) Donostia Sustapenarekin lan egitea, hala badagokio, finantza kontroleko jardunetan eta edozein egiaztapenetan, eta haren eskura jartzea eskatu ahal zaion informazio eta dokumentazio guztia.
- m) Oinarri hauetako 6,7 eta 8 artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- n) Donostia Sustapenari baimena ematea enpresen direktorio digitaletan jartzeko harremanetarako datuak, jarduera, izen komertziala, logotipoa, marka edo onuradunak trafiko ekonomikoak darabilen bestelako ikur bereizlea. Horretarako, onuradunak Donostia Sustapenari emango dio elementu horien ustiapeneko lizentzia ez eskusiboa, mugatua eta bakarra, eta adierazitako xedeentzat soilik, eta haren erabilera baketsua bermatuko du. Hortaz, Oinarri hauetan berariaz zehatu ez den erabilera ororako baimen espresua beharko da.
- o) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio-euskarrietan (web-a, gizarte-sareak, emailing-ak, megafonia, seinaleak...), sustapen- eta hedapen-materialak editatzea, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan hizkuntza erabiltzea...

Onuradunek aholkularitza zerbitzua eskatu ahal izango diote Donostiako Udalaren Euskara zerbitzuari (gehienez hilean 1.000 karaktere itzultzea eta 9.000 karaktere zuzentzea), zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen diren bitartean. ([Http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es](http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es))

- p) Azpiegitura guztian sartzea (birkarga-guneetan), Donostiako Udalaren, Donostia Sustapenaren eta Next Generation EU funtsen entitate finantzatzaileen erreferentziarako guneak eta logotipoak. Eskakizuna onartzen den unean, Donostia Sustapenak adieraziko dio onuradunari nahitaez sartu behar diren erreferentziak zein diren, eta tamaina, kokapena eta abar zehaztuko du. Hurrengoak izango dira nahitaez sartu behar diren erreferentziak:

Proiektu hori Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan egikaritu dela, eta Europako Batasunak, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzatu dutela.



2.-



Halaber, entitate onuradunek Europar Batasunaren Suspertze

eta

Erresilientzia Mekanismoaren finantzazioari dagozkion europar eta nazioko obligazioak bete beharko dituzte. Horretarako, hurrengo bete behar dute.

- a) Diruz lagundutako jarduerak diseinatzean eta gauzatzean, erakunde onuradunek “kalte nabarmenik ez eragiteko” printzipioa (edo Do Not Substantial Harmen “DNSH” ingelesezko siglen arabera) errespetatzen dela bermatuko dute, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren (PRTR), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta hura garatzeko araudian aurreikusitakoari jarraikiz. Are zehatzago, Batzordearen komunikazioa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren arabera «kalte esanguratsurik ez sortzeko» printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoa, eta Kontseiluaren Betearazpen Erabakian Espainiaren berreskuratze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruz eskatutakoa.

Proiektuen diseinuaren, gauzatzearen eta justifikazioaren fase guztietan laguntzaren xede diren proiektu guztiek, banan-banan eta jarduera bakoitzerako, ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko printzipioa (DNSH printzipioa, ingelesezko siglengatik, «Do No Signant Harm») eta etiketa klimatikoaren eta digitalaren baldintzak (073 etiketa, % 100eko ekarpen klimatikoarekin) errespetatu beharko dituzte: Udal garraio bide azpiegitura garbia).

- b) Espainiako eta Europar Batasuneko erakundeen kontrol-jardueren mende jarriko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikulua arabera.
- c) Diru-laguntza honen esparruan egindako jarduketan auditoretza pista egokia mantentzea eta legez eskatzen den epean dokumentazio euskarriari eustea beren gain hartzen dute. Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak Espainiako eta Europar Batasuneko araudiei jarraikiz ezartzen dituen baldintzetan emango da informazioa.
- d) Dokumentuak formatu elektronikoa gordetzea bost urtez saldoa ordaintzen denetik edo, ordainketa hori egin ezean, eragiketa ordaintzen denetik, edo hiru urtez, finantzaketa 60 000 eurotik beherakoa edo berdina bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikuluaekin bat etorritik (erregelamendu hori Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa da).
- E) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema (PRTR) konfiguratzeko duena, eta baita azpikontratistena ere, dagokienez, aplikatu beharreko Europako eta nazioarteko araudia bete beharko dute, eta, are zehatzago, MRR Araudiaren ondoriozko obligazioak ere, etiketatu digitalaren eta berdearen arloan bereziki eta baita hurrengoetan ere: kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioan, interes gatazkak, iruzurrak, ustelkeria, finantzazio bikoitzeko ez lehiakortasuna, Estatuko laguntzen arloko araudia betetzean, komunikazioan eta datuen transferentzian, besteak beste. Eskararekin batera aurkeztuko dira, halaber, «Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren (PRTR) jarduerak egikaritzearekin lotutako konpromiso-adierazpena» eta «Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) jarduerak egikaritzearekin lotutakoa».

Diruz lagundutako ondasunaren titulartasuna izatea, dirulaguntza eman zen xederako erabiltzea, eta kargatzeko gunea gutxienez ere bost urtez egon dadin erabilgarri, instalazioa legeztatzen den egunetik hasita.

Laguntzaren azken hartzaileak laguntzaren xede den ondasuna besterentzen badu, ezarritakoa baino epe laburragoan, hark hurrengoa egin beharko du:

- Hartzaile berriak dirulaguntzaren hartzaile izateko Oinarri hauetan aurreikusitako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzea eta Donostiako Udalaren aurrean aitortzea.
- Berariaz adieraztea salerosketaren kontratu-dokumentuan:
  - o Ondasun hori Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) laguntza jaso duela, eta Europako Batasunak, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzatu dutela.
  - o Eskuratzailerik berriak laguntzaren azken hartzailearen jarrera juridikoa bere gain hartzen duela, aipatu epea bete arte gutxienez.
- Donostiako Udalari jakinaraztea egin den salerosketa, egin denetik hiru hilabeteko epean.

Azken hartzaileak ez baditu betetzen besterentzeari datxezkion eskakizunak, besterentzea behartuta dago jasotako laguntza, osorik edo zati batean, hurrengo artikuluan ezarritako moduan itzultzera, dagokionaren arabera.

## 19. ARTIKULUA. KOFINANTZAZIOA

1.- Diru-laguntza hauek “Donostiako Helmugako Turismoaren Jasangarritasunerako Lurralde Plana (PSTD)” (2022-2024) proiektuaren jardueren barruan sartzen da, eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruaren barruan. Azken hau Europar Batasunak finantzatzen du- Next Generation EU funtsekin, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren bitartez, eta baita Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ere.

## 20. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

1.- Datuen babeseke indarrean den araudia beteaz, Oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten diegu dagokion eskakizunaren bitartez emandako datu pertsonalak eta laguntzak izapidetzen diren bitartean edo eman ondoren haiek kudeatzeko emandako edozein dokumentaziotan emandakoak ere, Donostiako Udalak tratatzeko gordeko direla, zeina Tratamenduaren Erantzule izango den, eta Donostia Sustapenak kudeatuko dituela, tratamenduaren arduradun gisa. Tratamenduaren xedea laguntza horien eskaera eta izapidetzearen kudeaketa izango da.

2.- Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua da, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek askatasunez zirkulatzeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO): tratamendua beharrezkoa da interes publikoan edo

botere publikoak erabiltzean egindako misio bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

3.- Oinarri hauetan edo kasuan kasuko eskabide inprimakietan horrela adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa nahitaez eman beharko da, eta ez bada behar bezala hornitzen edo datu okerrak ematen, eskaera ezin izango da kudeatu.

4.- Datuak behar den denboran gordeko dira bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik sor litezkeen erantzukizunak zehazteko.

5.- Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek ekarritako datu pertsonalak erakunde nazionalen edo nazioz gaindikoen alde utzi ahal izango dira, baldin eta laguntza horiek kofinantzatzen badituzte eta/edo Donostiako Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori beharrezkoa denean, eta soilik haien kontzesioa kudeatzeko.

6.- Gainera, laguntzak emateak onuradunaren datuak jakinaraztea edo lagatzea dakarrela jakinarazten da, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren web orrian argitaratuta, eta baita Diru-laguntzen Nazioko Datu-basean ere.

7.- Kaltetuek datuak atzitzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eskubideak eta baita datuen babeseko indarrean den araudian datozen beste guztiak erabili ahal izango dituzte, Donostiako Udalaren Udalinfon, Easo Kalea 41, 2006 Donostian.

Zure eskubideen erabileran ez baduzu arreta egokia izan, erreklamazioa aurkez dezakezu Datuen Babeserako Euskal Agentzian. Helbidea: Beato Tomás de Zumarraga kalea, 71 – 3. solairua - 01008 Gasteiz. Halere, lehenengo aldian, Donostiako Datuen Babeseko ordezkariari aurkeztu ahal izango dio erreklamazioa: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

Ondorio horietarako, aditzera ematen da, eskaera aurkeztuta, eskatzaileak espresuki onartzen dituela aurreko lerroaldeetan adierazitakoaren ondoriozko komunikazio edo datu lagapenak.

## 21. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNAREN SALBUESPENA

1.- Interesdunek oinarri guztiak onartzen dituztela ulertuko da eskakizun hau aurkeztean.

2.- Pertsona onuraduna izango da diruz lagundutako jardueraren aurretik edo ondoren gerta daitezkeen edo haien ondoriozko kalte materialen eta/edo pertsonalen erantzule bakarra, eta kontzeptu horiei dagokienez, erantzukizun orotik at utziko du Donostiako Udala eta Donostia Sustapena.

Donostian, 2023ko maiatzaren 16an